

## **Declaración sobre la concesión de la independencia a los países y pueblos coloniales**

Resolución 1514 (XV) de la Asamblea General, de 14 de diciembre de 1960

### **La Asamblea General,**

Teniendo presente que los pueblos del mundo han proclamado en la Carta de las Naciones Unidas que están resueltos a reafirmar la fe en los derechos fundamentales del hombre, en la dignidad y el valor de la persona humana, en la igualdad de derechos de hombres y mujeres y de las naciones grandes y pequeñas, y a promover el progreso social y a elevar el nivel de vida dentro de un concepto más amplio de la libertad,

Consciente de la necesidad de crear condiciones de estabilidad y bienestar y relaciones pacíficas y amistosas basadas en el respeto de los principios de la igualdad de derechos y de la libre determinación de todos los pueblos, y de asegurar el respeto universal de los derechos humanos y las libertades fundamentales para todos sin hacer distinción por motivos de raza, sexo, idioma o religión, y la efectividad de tales derechos y libertades,

Reconociendo el apasionado deseo de libertad que abrigan todos los pueblos dependientes y el papel decisivo de dichos pueblos en el logro de su independencia,

Consciente de los crecientes conflictos que origina el hecho de negar la libertad a esos pueblos o de impedirla, lo cual constituye una grave amenaza a la paz mundial,

Considerando el importante papel que corresponde a las Naciones Unidas como medio de favorecer el movimiento en pro de la independencia en los territorios en fideicomiso y en los territorios no autónomos,

Reconociendo que los pueblos del mundo desean ardientemente el fin del colonialismo en todas sus manifestaciones, Convencida de que la continuación del

## **Herrialde eta herri kolonialei independentzia emateari buruzko Adierazpena**

1960ko abenduaren 14ko Biltzar Orokorraren 1514 (XV) ebazpena

### **Biltzar Orokorrak,**

Aintzat harturik munduko herrialdeek Nazio Batuen Gutunean aldarrikatu dutela euren fedea berresteko erabakia, zertan eta, gizon-emakumeen oinarrizko eskubideetan, gizakien duintasun eta balioan, gizon-emakumeen eskubideberdintasunean eta herrialde handi eta txikietan; eta, oro har, gizarte-aurrerabidea sustatzeko eta bizitza-maila hobetzeko, betiere, askatasun kontzeptu zabalagoaren barruan,

Jakitun izanik beharrezkoa dela egonkortasun- nahiz ongizate-baldintzak eta harreman baketsu eta adiskidetsuak sortzea, eskubideen berdintasun-printzipioen eta herriek duten determinazio askerako eskubide-printzipioen errespetuan oinarritzen direnak; eta giza eskubide eta oinarrizko askatasunen errespetu unibertsala eta eskubide eta askatasun horien eraginkortasuna ziurtatzea, inolako bereizketarik gabe, arraza-, sexu-, hizkuntza- edo erlijio-arrazoiengatik,

Aitortuz menpeko herri guztiek duten askatasun gogo sutua, eta herri horiek duten zeregin erabakigarria euren independentzia lortzeko,

Jakitun izanik herri horiei askatasuna ukatzeak edo galarazteak gero eta gatazka gehiago sortzen dutela, eta hori mehatxu larria dela munduko bakeari begira, Kontuan harturik Nazio Batuei dagokien zeregin garrantzitsua, bitarteko gisa sustatzeko independentziaren aldeko mugimendua, zainpeko lurraldeetan eta autonomoak ez diren lurraldeetan,

Aitortuz munduko herriek gogo biziz nahi dutela kolonialismoari amaiera ematea, bere forma guztietan,

Sinetsita kolonialismoarekin jarraitzeak

colonialismo impide el desarrollo de la cooperación económica internacional, entorpece el desarrollo social, cultural y económico de los pueblos dependientes y milita en contra del ideal de paz universal de las Naciones Unidas,

Afirmando que los pueblos pueden, para sus propios fines, disponer libremente de sus riquezas y recursos naturales sin perjuicio de las obligaciones resultantes de la cooperación económica internacional, basada en el principio del provecho mutuo, y del derecho internacional,

Creyendo que el proceso de liberación es irresistible e irreversible y que, a fin de evitar crisis graves, es preciso poner fin al colonialismo y a todas las prácticas de segregación y discriminación que lo acompañan,

Celebrando que en los últimos años muchos territorios dependientes hayan alcanzado la libertad y la independencia, y reconociendo las tendencias cada vez más poderosas hacia la libertad que se manifiestan en los territorios que no han obtenido aún la independencia,

Convencida de que todos los pueblos tienen un derecho inalienable a la libertad absoluta, al ejercicio de su soberanía y a la integridad de su territorio nacional,

Proclama solemnemente la necesidad de poner fin rápida e incondicionalmente al colonialismo en todas sus formas y manifestaciones;

Y a dicho efecto

**Declara que:**

**1.** La sujeción de pueblos a una subyugación, dominación y explotación extranjeras constituye una denegación de los derechos humanos fundamentales, es contraria a la Carta de las Naciones Unidas y compromete la causa de la paz y de la cooperación mundiales.

**2.** Todos los pueblos tienen el derecho de libre determinación; en virtud de este derecho, determinan libremente su condición política y persiguen libremente su desarrollo económico, social y cultural.

nazioarteko lankidetza ekonomikoaren garapena galarazten duela, menpeko herrien gizarte-,kultura- eta ekonomia-aurrerabidea oztopatu eta Nazio Batuen bake unibertsalaren idealaren aurka egiten duela,

Berretsiz herriek, euren helburuetarako, ahal dutela euren aberastasuna eta baliabide naturalak askatasunez erabili, elkarrekiko onuraren printzipioan oinarritutako nazioarteko lankidetza ekonomikoaren betebeharrei eta nazioarteko zuzenbidearen betebeharrei kalterik egin gabe,

Sinetsita askatasun-prozesua geldiezina eta atzeraezina dela, eta, krisi larriak saihesteko beharrezkoa dela kolonialismoarekin eta horren inguruko bereizkeria-eginera guztiekin amaitzea,

Ospatuz azken urteetan menpeko lurralde askok lortu dutela askatasuna eta independentzia, eta aitortuz oraindik independentziarik lortu ez duten herrialdeek gero eta joera sendoagoak adierazten dituztela askatasunaren alde,

Sinetsita herri guztiek dutela eskubide besterenduezina askatasun osoa, euren subiranotasuna egikaritu eta nazio-lurraldea osotasunean izateko,

Solemnitate osoz aldarrikatzen du kolonialismoarekin eta horren forma eta adierazpen guztiekin azkar eta baldintzarik gabe amaitzeko beharrezkoa;

Eta ondorio horretarako

**Adierazten du:**

**1.** Herriek atzerritarren mende eta horien azpian eta esplotaziopean izatea oinarritzko giza eskubideak ukatzea da, Nazio Batuen aurka doa eta nazioen arteko bakea eta lankidetza kolokan jartzen ditu.

**2.** Herri guztiek dute determinazio askerako eskubidea; eskubide horren arabera, askatasunez zehazten dute euren egoera politikoa eta, berebat, askatasunez lortzen dute euren ekonomia-, gizarte- eta kultura-garapena.

- 3.** La falta de reparación en el orden político, económico, social o educativo no deberá servir nunca de pretexto para retrasar la independencia.
  - 4.** A fin de que los pueblos dependientes puedan ejercer pacífica y libremente su derecho a la independencia completa, deberá cesar toda acción armada o toda medida represiva de cualquier índole dirigida contra ellos, y deberá respetarse la integridad de su territorio nacional.
  - 5.** En los territorios en fideicomiso y no autónomos y en todos los demás territorios que no han logrado aún su independencia deberán tomarse inmediatamente medidas para traspasar todos los poderes a los pueblos de esos territorios, sin condiciones ni reservas, en conformidad con su voluntad y sus deseos libremente expresados, y sin distinción de raza, credo ni color, para permitirles gozar de una libertad y una independencia absolutas.
  - 6.** Todo intento encaminado a quebrantar total o parcialmente la unidad nacional y la integridad territorial de un país es incompatible con los propósitos y principios de la Carta de las Naciones Unidas.
  - 7.** Todos los Estados deberán observar fiel y estrictamente las disposiciones de la Carta de las Naciones Unidas, de la Declaración Universal de Derechos Humanos y de la presente Declaración sobre la base de la igualdad, de la no intervención en los asuntos internos de los demás Estados y del respeto de los derechos soberanos de todos los pueblos y de su integridad territorial.
- 3.** Politika-, ekonomia-, gizarte- edo hezkuntza-ordena kontuan ez hartzea ezin izango da aitzakia izan independentzia atzeratzeko.
  - 4.** Menpeko herriek independentzia osoa izateko eskubidea modu baketsuan eta askatasunez egikari dezaten, beharrezkoa izango da egintza armatu oro edota herri horiei zuzendutako edozein izaerako errepresio-neurri oro amaitzea, eta, halaber, beharrezkoa izango da nazio-lurraldearen osotasuna errespetatzea.
  - 5.** Zainpeko eta autonomo ez diren lurralde eta gainerako lurralde guztietan, oraindik independentziarik lortu ez dutenetan, berehalako neurriak hartu beharko dira lurralde horien herriei boterea emateko, baldintza eta erreserbarik gabe, euren borondatearekin eta askatasunez adierazitako nahiekin bat etorritik, eta inolako bereizketarik egin gabe arraza-, sinesmen- edo larru kolore-arrazoiengatik, haiek izan ditzaten erabateko askatasuna eta independentzia.
  - 6.** Herrialde baten lurraldearen nazio-unitatea eta -osotasuna oso-osorik edo zati batean urratzera bideratutako ahalegin oro bateraezina da Nazio Batuen Gutunaren asmo eta printzipioekin.
  - 7.** Estatu guztiek bete beharko dituzte, leialtasunez eta modu hertsian, Nazio Batuen Gutunaren xedapenak, Giza Eskubideen Adierazpen Unibertsalarenak eta adierazpen honenak, betiere, oinarri hartuta, herrien arteko berdintasuna, gainerako estatuen barneko gaitan parte hartzerik ez izatea eta herri guztien eskubide subirano eta lurralde osotasunarekiko errespetua.